



LIBURUA

Lora dadin deika



EUSKAL IRATIAK

BIHARRAREN HEGIETAN

MADDI SARASUA LASKARAI

MAIATZ, 2024

MADDI GALDOS ARETA

Neguko naretasun hotz eta lur etzearen ostean etor daitekeenaren promes izaten da udaberria, eta hainbatek eta hainbatetan idatzi izan diote lora dadin deika. Promesak promes, ordea: ez da inoiz udaberri ziuurrik galbidean den lurtean. Ez behintzat aldaketaz edo, zehazki, iraultzaz ari bagara. Maddi Sarasua Laskarai (Itsasu, 1995) argiki dihardu horretaz argitaratu berri duen *Biharraren hegietan* (Maiatz, 2024) poema bilduman. Lerratu egin nahi izan ditu lerrook, irakurleoi “dei egin diezazueten esnatzean / istorioek historia idaztera”.

Hiru ataletan banatu ditu itsasuarrak liburua osatzen duten 61 poemak. *Katez beste* ataleko poemek gaur arte heldu diren kateak dituzte jopuntuan: izan lotzen gaituztenak zein askatu, boron-

datez sortu izan direnak. Bertan gailentzen den gutasunak zein hizpide diren ziklo aldaketak eta belaunaldi arteko arrakalak liburu osoa zeharkatzen dute, bildumaren muina “mundu honez beste egitera” doazen borondate politikoa dela gaineratuta.

Zulodun zapatak atalak eguneroko kontuetara gehiago hurbiltzen direnak ditu hizpide, tartean, garaiotako inguruei erreparatuta: bertan aurki daitezke lansaripeko lanaren zama, zubipeko oheak zein bestelako egia gordinak, baina baita itxuraz intimoago diruditen zailtza eta minak ere. *Goiza da orain* atala posible denaren aldarri da bere horretan, ahaleginetan dabiltzan ahaleginen lekuko, grina-iturri: gorri koloreko lore txikiak ageri baitira engaiatutako esku zimurgabeetan.

Hainbat autore dakartza Sarasuak orriotara, aitortzaren eta berridazketaren artean egun dugunarentzat zentzu berrituen bila. Halaber, olerkietako batzuk gertaera edo ekitaldi jakin baten kariatara sortutakoak direna dago adierazita: poesia ez baita gelako bakar-dadeetara mugatu beharrik. Idazkera neurritsua da olerkietakoa, eta errimek zein hotsen errepikapenen gisakoek doinu eta erritmo gozagarriak eskaintzen dizkiote irakurleari.

Gopeguiri irakur dakioke askatasuna ez dela, akaso, nora goazen erabakitzea, baizik eta non kokatzen garen aukeratzeta, joan nahi dugula ikasi ahal izan dugun tokira joaten ahalegintzeko. Eta horixe da Sarasuak orriotan dakarkiguna: hegi bat, finean, begiekin urrunera ikusi ahal izan eta ibilian abiatzeko. ●